

Ezin egileaz fidatu

Zer da literatura, funtsean? Egile guztiek zer dute azken helburu? Beren burua desenkusatzea”.

Nik ez dut, saiatuta ere, kontra egite-rik.

“Mundua, nork bere begietatik ikusita, hartaz espero dugunaren neurrira egina dago. Oztopo nagusia ikuspegi ugaritasunean datza, bakoitzari arrazoa kentzen baitigu, zerbait handiago eta lausoagoaren mesede, gizartea edo morala izeneko zerbait eraikitzeko. Horri sekretuki buru egiteko, gezurra sortu zen, norberaren funtsezko egiari eusteko bitarteko bakarra. Hortik, denborarekin, literatura bera”.

Ez ulertzearen aurpegia geldituko zitzaidan, hark jarraitu baitu.

“Adibide bat jarriko dizut. Nathaniel Hawthorne idazlearen emaztea Bostongo ahaide batzuk bisitatzera abiatu zen, 1851ko udan, senarra landetxean bakarrik utzita, bost urteko Julian semeaz eta Little Bunny untxitxoaz arduratu beharrekin. Hawthornek egun horietako gertakizunen egunerokora eramatea deliberatu zuen, haurrarekiko esperientzia bakartia jasorik. 1932ra arte ez zen argitaratu, Julianek 86 urte zituelarik, *Twenty Days with Julian & Little Bunny by Papa* izenburupean. Oso liburutxo atsegina da, aldarte onekoa. Haurtzaroaren gaineko begirada arretatsu bat, miresmenetik ez aski urruna, inauguratzen zuen, orduz geroztik tamalez ez diguna utzi. Emaztea itzultzen den unean bertan gelditzen da narrazioa, “Jainkoari eskerrak” batekin.

“Aita gaztea, azkenean, hasieran uste baino hobeki moldatu delako inpresioa hartzen du irakurleak. Emazteak ere irudipen hori hartuko luke iraku-



JOSU SANTESTEKAN

ritakoan. Orduan —gehitu du Watsonek, begiak dizdiz, lokarria estutu didan bitartean—zilegi zaigu susmatzea kronika ez ote den xede horrexekin burutu, alegia, emaztea ez zegoen tartean egiatan gertatutakoa berari ezkutatzeko asmoarekin. Azken batean, hogei egun horien buruan, mutikoa gaixorik dago, untxia hilik, eta semeak, hurrek ohi duten egokierarekin, aitari bisita egindako eta berarekin paseoan ibilitako hainbat emakume ederrez hitz egin zezakeen. Azalpen logikoa emanez, ustekabe horiek guztiak lotzeko (eta, bidenabar, Sophia emaztea xotilki errudun sentiarazteko) gogoia sumatuko dio, arazorik gabe, gaurko irakurleak lan honi”.

Watson doktoreak, nire ondotik pitin bat aldenturik, dibanean eratzana den gizon lozorrotuarengana jo du. Flasko txiki bateko hautsak xiringan ongi disolbatu ondoren, makurtu eta besoan injektatu dio. Xiringa oraindik eskuan duela, nire ondora egin du:

“Bazenekien gauza bat? Julian Hawthorne ere, aitaren bidea jarraituta, idazlea izan zen, ez aita bezain handia, jakina, ezta zu zeu bezainbeste ere, nahiz eta biok genero bera jorratu izan duzuen: misterio eta hil-keta nobelak”.

Gelako beste aldean plazerezko murmurio eldarniotsuak aditu dira. Lokarrietatik askatzeko mugimendu bortitza egin dut, alferrik. Watsonek

xiringa aireaz bete du.

“Ikusten? Sherlock, nola iritsi den ere jakin gabe, bere etxean esnatuko denean, hona ekarriko dut berriz ere, krimen eszenara. Beti egin dudan modu berean. Orduan utziko diot berak hilketa hau argitu dezala. Ez da zaila drogazale bat bideratzea, gutxiago medizina dosifikatzen jakinez gero. Istorioa, gainera, nik neuk idatziko dut, Holmesen zorrozatasuna, neure kome-ntuziara, ongi goraturik. Krimen perfektua, idazlearena; ez duzu uste? Ez zenuen inoiz honen susmorik hartu?”.

Aurrez aurre jarri zitzaidan, begiak nireetan iltzaturik baina ikusezin banintzaio bezala.

“Ez al zenion zeure izenari ere erreparatu, Arthur Conan Doyle jauna? Anagrama bat da, *Can't rely on author*. Ezin egileaz fida”. ■

Flasko txiki bateko hautsak xiringan


ongi disolbatu ondoren, makurtu

eta besoan injektatu dio.

Xiringa oraindik eskuan duela,

nire ondora egin du

Watson doktoreak



irudiak:
Antton Olariaga